

**UDAL BATZARRA 9/03**

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO MAIATZAREN 23AN EGINDAKO  
EZOHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**LEHENDAKARIA:** Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga

**ZINEGOTZIAK:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka  
Miren Maite Aizpurua Etxeberria  
Manuel Odriozola Iruretagoiena  
Mikel Errazkin Agirrezabala  
Rafael Uribarren Axpe

**IDAZKARIA:**

Oskar Azkona Garcia

**AZTERGAIAK:**

- 1.-2003ko apirilaren 3ko, apirilaren 4ko, apirilaren 10eko, apirilaren 30eko eta maiatzaren 9ko akten onarpena.
- 2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 146 zenbakitik 235 zenbakira.
- 3.-2002ko ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa.
- 4.-KUKU elkarteari dirulaguntza.
- 5.-ARANZADI zientzia elkarteari dirulaguntza.
- 6.-BERRIA BERRI egunkariari dirulaguntza.

- 7.-Oskar Padura abokatua izendatu 57/03 helegite kontentzioso-administratiborako.
- 8.-Tolosako Udal Talde 21 proiektua egiteko eta garatzeko lankidetzaren hitzarmena.
- 9.-Abraham Olanoren omenaldiaren likidazioa onartzea.
- 10.-Ikastolari dirulaguntza.
- 11.-ORBINOX-ekin hitzarmena.
- 12.-Azken urteetan igogailua jarri dutenei dirulaguntza.
- 13.-“Ideia guztiak” hauteskundeetan mozioa.

Anoetako Udaletxean, bi mila eta hiruko maiatzaren hogeita hiruan, arratsaldeko bostetan, Udal-Batzarra bildu da, Ezohizko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Oskar Azkona Garciak, Udal honetan Bitarteko Idazkari bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

### **1.-2003ko apirilaren 3ko, apirilaren 4ko, apirilaren 10eko, apirilaren 30eko eta maiatzaren 9ko akten onarpena.**

Udalbatzarrerara bertaratutakoek ahobatez onartu dituzte aktak.

### **2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 146 zenbakitik 235 zenbakira.**

Udalbatzarrerara bertaratutakoek ahobatez onartu dituzte Alkateak luzatutako dekretuok.

### **3.-2002ko ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa.**

Alkateak adierazten du aurreikusitakoa baino 300 bat milioi pezeta gutxiago kobratu dela, eta aurreikusitakoa baino 240 milioi bat pezeta gutxiago gastatu dela, ondorioz defizita 60 bat milioi pezetakoa izanik.

Halaber, 2001eko likidazioan superabit zegoela, egin beharreko zenbait gastu ez zirelako egin, eta gastuok 2002.ean egin direla defizita eraginez. Beraz, urte bateko superabita beste urteko defizitarekin orekatzen direla.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute 2002ko aurrekontu orokorraren likidazioa.

#### **4.-KUKU elkarteari dirulaguntza.**

KUKU Pilota Elkarteari 2100 euroko dirulaguntza emateko proposatzen da. Urtero ematen zaiola eta aurten pixtat gehiago izango dela, prezioen igoeragatik.

Aipatzen da ekainaren 13a baino lehen ordaindu beharra.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute.

#### **5.-ARANZADI zientzia elkarteari dirulaguntza.**

Proposamena da 1200 euroko dirulaguntza ematea, Pirineotako harrespilei buruzko liburuxka argitaratzeko.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute.

#### **6.-BERRIA BERRI egunkariari dirulaguntza.**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute egunkari berriari 2800 euroko dirulaguntza ematea.

#### **7.-Oskar Padura abokatua izendatu 57/03 helegite kontentzioso-administratiborako.**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute Oscar Padura Unanue abokatu izendatzea 57/03 helegite kontentzioso administratiborako, eta baita 286/03 Auto zenbakia duen eta Sozial Epaitegian jarritako auzi eskerako ere.

### **8.-Tolosako Udal Talde 21 proiektua egiteko eta garatzeko lankidetzaren hitzarmena.**

Zenbait udalek osatzen duten, eta jasangarritasuna helburu duen Tolosako Udal Talde 21 izenekoa, Anoetako Udala sartzea proposatzen da.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute.

### **9.-Abraham Olanoren omenaldiaren likidazioa onartzea.**

2002ko abenduan omenaldia egin zitzaion Abraham Olanori Anoetan eta Tolosan, gastu bat onartu zen, eta likidazioan nabari denez gastuak handiagoak izan dira. Falta den dirua bi udalen artean banatzea proposatzen da, Anoetako Udalak 4368,47 euro ordaindu beharko lukeelarik.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute.

### **10.-Ikastolari dirulaguntza.**

Azaltzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza bat eman diola ikastolari; urtero ematen diola, eta aurten handitu egin duela. Hitzarmen baten arabera Anoeta eta Irurako Udalen artean Aldundiak beste diru eman behar diotela ikastolari. Anoetako Udalak, dagokion 3660 euroko dirulaguntza ikastolari eman diezaiola proposatzen da.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute.

### **11.-ORBINOX-ekin hitzarmena.**

Azaltzen da Anoetako Udalak eta ORBINOX S.A. enpresak hirigintza hitzarmena egin dutela, eta honen ondorioz lehengo bi gune, *Gure ametza* izeneko A8 eta *ORBINOX* izeneko A9, batu egin direla *ORBINOX* izeneko A9 sortuz.

Udalbatzarrera bertaratutakoek, ahobatez, ontzat eman dute hitzarmena.

### **12.-Azken urteetan igogailua jarri dutenei dirulaguntza.**

Alkateak azaldu duenez, Ordenantza bidez erabaki da, 10 urte baino gehiagoko etxebizitzetan igogailua jartzeagatik %95eko bonifikazioa izango dutela Udalarekin zorrik ez duten auzotarren komunitateek. Gaur proposatzen dena da, azken urteetan igogailua jarri dutenei bonifikazio bera aplikatzea.

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute.

### **13.-“Ideia guztiak” hauteskundeetan mozioa.**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute honako mozio hau:

#### *IDEIA GUZTIAK HAUTESKUNDEETAN AURKEZTU ETA UDALEAN ERREPRESENTATUAK IZATEAREN ALDEKO MOZIOA*

*Espainiar Gobernuak Alderdien Legea onartzean ezker abertzalearen ideiak isilaraztea soilik bilatzen zuen; ezker abertzalearen ideiak Udal eta Foru Aldundietatik urruntzea soilik. Primo de Riveraren diktadurapeko garaira Euskal Herria itzuliaz, alegia erregimenarekin bat egiten ez duten ideiak ilegalizatu eta mapa politikotik ezabatzen saiatuaz.*

*Alderdien Legea onartzean AUB eta hainbat herri plataformen zerrendak baliorik gabe utzi dituzte, tartean Anoetako Anoetarrok Auzolanean taldea. Talde hauek hauteskunde juntak onartu baditu ere, espainiar organu judizialek baliorik gabe utzi dituzte, garbi geratu delarik erabaki politiko baten aurrean aurkitzen garela. Zerrenda hauek baliorik gabe uztean alderdi abertzaleen arteko konfrontazioa bultzatu eta talde*

*hauetako kideek hauteskundeetan aurkezteko duten eskubide zibila urratzeaz gain, herritarren hainbat oinarrizko giza eskubide urratzen dituzte: pentsamendu librea, adierazpen askatasuna, elkarretaratzea, euren ideiak errepresentatuak izatearen eskubideak eta abar.*

*Anoetarrok Auzolanean taldea ilegalizatzean, anoetarrek ere eskubide urraketa horiek nozituko dituzte; 1979tik, lehen hauteskundeak burutu zirenetik, anoetarrek jasan duten erasorik larriena delarik.*

*Honen aurrean Anoetako Udalak zera onartzen du:*

- 1. Anoetarrek inoiz jasan duten eskubide urraketa honen aurrean konfrontazio guztiak saiestuaz, herriko alderdi politiko, talde eta herritarrek elkarlanean erantzun behar dugu.*
- 2. Ideia guztiak islatuak izan daitezzen, elkarlanean adostutako bideak jorratuko ditugu.*
- 3. Inoiz baino ozenago herriak hitza eta erabakia izan behar duela aldarrikatzen dugu*

*Anoetan, 2003ko maiatzaren 23an*

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko seiak bost gutxiago direnean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

O.E

ALKATEA

Bitarteko IDAZKARIA